



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Andoni Alvarez Lete
	Estibalitz Mujika Tolaretxipi
	Jon Zulueta Berastegi
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Julian López Aracama
PSE-EE	M ^a Teresa Etxeberria Arteun
	Xabier Fondón Pajares
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
EAJ-PNV	Petra Romero Pozo
	Oscar Mendo González
	Maria Jose Izagirre Iturzaeta
	Alexander Huitzi Alfonso
Elkarrekin Podemos	M ^a Sagrario Ruiz Fernández
	Imanol Goenaga Egibar
	M ^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	0000012
Eguna	2021/11/25
Hasiera	17.00
Amaiera	18.42

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso

Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Arratsalde on, guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2021eko azaroaren 25eko udalbatzarra honetara, ikus dezakezuenetz bostak dira eta plenoari hasiera emango diogu, hain zuzen ere, zazpiretan indarkeria matxistaren ekitaldia izango dugulako.

“Decía que, muy buenas tardes a todas y a todos y bienvenidas al pleno del 25 de noviembre de 2021 que, lo estamos celebrando a las cinco de la tarde, debido a que a las siete, tendremos el acto de la violencia machista.”

Gai Zerrenda:

- 2021/10/28(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Andoingo HAPOko HEE 45 Agirialai hirigunerako Zatikako Planaren Testu Bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena
- Andoingo HAPOko HEA 48 Illarramendiko b.01 lursaila zatitzeko xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.
- Onartzea, hasierako izaeraz, Eguneko Egoitzako Barne Araudia aldatzeko

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 28/10/2021.

Parte Dispositiva

- Propuesta de aprobación, con carácter definitivo, del Texto Refundido del Plan Parcial de AIU 45 Agirialai del PGOU de Andoain
- Propuesta de aprobación, con carácter definitivo, del Estudio de Detalle para la división de la parcela b.01 del AIU 48 Illarramendi del PGOU de Andoain
- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de modificación del Reglamento de



- | | |
|---|---|
| <p>proposamena.</p> <p>5. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren espleipen-prezioa osatzeko proposamena.</p> <p>6. 2021.06.30 datako kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.</p> <p>7. 2021.30.09 datan kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.</p> <p>8. EH Bildu udal taldeak 2021ko azaroaren 12an aurkeztutako mozioa, interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa.</p> | <p>Régimen Interior del Centro de Día.</p> <p>5.- Propuesta de complementar el precio de adjudicación del servicio de transporte urbano de viajeros en Andoain.</p> <p>6.- Dar cuenta del informe a 30.06.2021 emitido por la Interventora.</p> <p>7.- Dar cuenta del informe a 30.09.2021 emitido por la Interventora.</p> <p>8.- Moción presentada por el grupo municipal EH Bildu el 12 de noviembre de 2021 en relación a la nueva regulación de los proyectos de interés público superior.</p> |
|---|---|

Kontrola

9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1902/2021 zenbakidunetik 2073/2021 zenbakidunera.
10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 9.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1902/2021 y la nº 2073/2021.
- 10.-Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1. 2021/10/28(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2021/10/28 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2. Andoingo HAPOko HEE 45 Agirialai hirigunerako Zatikako Planaren Testu Bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.

Kontuan harturik, Alkatetzak, 2019ko uztailaren 19an emandako 496/2019 zenbakiko ebazpenaren bidez, hasierako izaeraz onartu zuela Andoingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren HEE 45 Agirialai guneari dagokion Plan Partziala, zeina Iñaki Tanco, Alejandro Sainz de la Encina eta Imanol C. Garcia de Albeniz arkitektoek eta José M^a Abad eta Ana Goñi abokatuek idatzi zuten 2019ko ekainean, ebazpenean bertan jasotzen diren baldintzekin.

Kontuan harturik, Plan partziala, plan partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta xede horrekin bideratutako espedientea jendaurrean jarri zirela, 45 egun baliodun epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2019ko uztailaren 26a datako 142 zenbakian, 2019ko uztailaren 30eko Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan, udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratutako iragarkiaren bidez, interesatuek egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan zezaten.

Kontuan izanik, gaia jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, eraginpeko herri administrazioei eta aurretik gaiaz galdetu zitzaiera pertsona interesdunei kontsultatu zitzairen, 45 egun baliodun epean egoki iritzitako txosten eta argudioak idatziz aurkez zitzairen.

Kontuan izanik, dokumentua hasierako izaeraz onartzen zuen erabakia plan partzialaren eremuan lursailak dituzten jabeek jakinarazi zitzaiera.

Kontuan harturik, espedientea jendaurrean egon zen bitartean (2019ko urriaren 3an amaitu zen epea), zortzi alegazio aurkeztu zirela, Udaleko idazkariak 2019ko urriaren 14an egindako ziurtagirian jasotzen den bezalaxe.

Ikusirik udal teknikariek egindako txostenak, Alkateak, 2021eko martxoaren 25eko 578/2021 Ebazpenaren bitartez, jendaurreko epean aurkeztutako alegazioei erantzuna eman zien ebazpenaren I.



eranskinean adierazitako zentsuan eta aipaturiko arrazoiengatik eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aipatzen den laburpen-sustatzailea aurkezteko errekerimendua luzatu zuen. Dokumentu horrek deskribatuko du planaren edo programaren azken proposamenen ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismen-dokumentura egokitzea eta egindako kontsulten emaitzak eta horiek nola hartu diren kontuan.

Kontuan izanik ebazpen hori alegazioak egin zituzten guztiei eta planaren sustatzaileari jakinarazi zitzaizela.

Kontuan izanik Balfer Norte SL enpresaren izenean diharduen Fermin Loidi Garayalde jaunak HEE 45 Agirialai hirigunerako plan partzialaren behin-behineko onarpenerako dokumentua aurkeztu zuela.

Ikusirik udal teknikoaren egindako aldeko txostenak, Alkateak, 2021eko maiatzaren 6ko 827/2021 Ebazpenaren bitartez, honakoa erabaki zuen: a) HEA 45 Agirialaiko plan partzialari behin-behineko onespina ematea, beti ere ondoren zehazten diren baldintzekin: a) Ingurumen-ebaluazioari buruzko - abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1.d) artikuluan aipatzen den laburpen-agiria aurkeztu beharko da plana eta haren espedientea ingurumen-organoari bidali aurretik, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa jaso dezan eta b) Plan partziala behin betiko izaeraz onartu aurretik, testu bategina aurkeztu beharko da, eta bertan jasoko dira ebazpen honen I eranskinean adierazitako zuzenketak eta, hala badagokio, ingurumen-organoaren ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondorioz egin beharreko aldaketak eta/edo doikuntzak eta b) Ebazpen hau, plan partziala eta lehenengo puntuan aipatutako laburpen-dokumentua igortzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari dagokion ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

Kontuan harturik, 2021eko uztailaren 19an jaso zela udal honetan Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariak 2021eko uztailaren 16an emandako Ebazpena, non Andoingo HEA45 Agirialai eremuko Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa formulatzen den. Ebazpen hori 2021eko irailaren 7ko 178 zenbakiko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko argitaratu da.

Kontuan harturik, 2021eko urriaren 25ean aurkeztu dela udaletxe honetan aipuan daukagun plan partzialaren testu bategina. Dokumentu honek 2021eko irailaren 16an aurkeztutakoa ordezkatzeko du.

Ikusirik eragindako administrazio sektorialekin emandako aldeko txostenak eta haietan adierazitako baldintzak ikusi dira, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak egindako Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ere.

Ikusirik udal arkitektoak 2021eko urriaren 27an egindako aldeko txostena. Bertan adierazten denez, 2021eko urriaren 25ean aurkeztutako dokumentuak 2021eko maiatzaren 6ko 827/2021 Alkatezaren Ebazpenean jasotako baldintzak betetzen ditu. Ebazpen horren bidez, behin-behinean onartu zen HEE 45 Agirialai eremuko plan partziala, eta bertan adierazten zen, plan partziala behin betiko izaeraz onartu aurretik, testu bategina aurkeztu beharko zela, eta bertan jasoko zirela ebazpen horren I eranskinean adierazitako zuzenketak eta, hala badagokio, ingurumen-organoaren ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondorioz egin beharreko aldaketak eta/edo doikuntzak.

Ikusirik, era berean, hirigintzako eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2021eko azaroaren 3an egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lansailak 2021eko azaroaren 18a datako bileran emandako irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du, aretoan dauden herritarrei zuzenduta:

“Ondo iruditzen bazaizue, gaia aurkeztuko dugu eta dagokizuenen hitza emango zaizue.

“Si les parece a todas y todos bien, lo primero se hará la presentación del tema y bueno, ya que lo han solicitado, antes de la votación se procederá a dar el turno de palabra, aunque ello conlleve la suspensión del pleno, como dice el Reglamento Orgánico.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak eta Hirintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. El pasado 19 de julio de 2019, se aprobó con carácter inicial el presente plan parcial, fue sometido a exposición pública durante un periodo de 45 días, simultáneamente se formularon consultas a las administraciones públicas y personas afectadas para que remitieran informes y alegaciones



que estimaran pertinentes.

“Durante el periodo tanto de exposición pública como de alegaciones se recibieron 8 alegaciones. Las cuales fueran resueltas por los informes técnicos y notificadas a los alegantes y al promotor del plan. El pasado 6 de mayo de 2021, teniendo en cuenta los informes técnicos municipales, se aprobó con carácter provisional el citado plan, condicionado a su aprobación definitiva, la declaración ambiental estratégica y el preceptivo texto refundido.

“El 19 de julio de 2021 se formuló la declaración ambiental estratégica y el 25 de octubre de 2021 se presentó en el ayuntamiento el texto refundido. Teniendo en cuenta los informes favorables recibidos de las diferentes administraciones sectoriales afectadas, la declaración ambiental estratégica emitida por órgano competente y los informes favorables de los técnicos municipales, sometemos a aprobación definitiva el Plan Parcial en cuestión. El Plan Parcial 45. Agirialai.”

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Araudi organikoak dioen bezala, orain moztuko genuke plenoa, zuentzako izango delako hitza.

“Como dice el reglamento orgánico municipal, ahora daríamos suspensión a lo que es el pleno para que la ciudadanía pueda opinar y no quedará registro tanto de las opiniones, como de las respuestas que se puedan dar al respecto.

“Eta bideo ere baita ere moztu beharko genuke. Ez dakit norbaitek hartu nahi duen hitza?”

Jarraian, Usandizaga andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, guztioi. Puntu honi dagokionez, aurreko astean egin zen Hirigintzako Batzordea eta bertan azaldu genituen arrazoi guztiak kontrako botoa emateko. Orain ez naiz arrazoiengan sartuko, zeren uste dut, bizilagunak hemen daudenez, nik baino hobeto azaldu dute guztia eta guk, jarraitzen dugu gure iritzia mantenduz eta gure botoa kontrakoa da eta, bizilagunekin bat egiten dugu, zeren, gure iritziz udalak bultzatu behar duela akordioa, jarraipen bat egiteaz gain eta, ikusita gaur hemen gertatutakoa eta bizilagunak egindako eskaerari erantzunez, proposatzen dugu bertan behera uztea bozketa.

“Bozketa egiten bada, jakin, gure bozka kontrakoa izango dela.”

Jarrian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nuestro grupo, en la misma línea, como ya lo expresamos en la comisión celebrada la semana pasada, nos parece que ha habido una falta de empatía total con los vecinos, porque, bien que el promotor no se ha puesto en contacto y, ahora mismo lo han expresado de nuevo, tampoco sabía que no habían mantenido ninguna reunión pero, sí me consta, por la reunión anterior que celebramos anteriormente que, incluso el promotor les veía y no les decía nada y todo lo que ha sabido ha sido por terceros. Entonces, no nos parece una postura muy lógica, desde el ayuntamiento que, una promoción de iniciativa privada, no se trata de una carretera, ni nada que cumpla una función social, derribe la casa de unos vecinos que, lo mejor se podía haber resuelto de otra forma, no lo sé, quizás, pero, lo que no nos parece, para nada, para nada, correcto es el trato que se ha dado a los vecinos, en realidad, ninguno, porque no se ha hecho ninguna mediación, es lo que expuse la semana pasada. A lo mejor, urbanísticamente, lo desconozco, no se puede hacer nada pero, lo que sí que tenían que haber visto los vecinos es un acompañamiento por parte del ayuntamiento que, creo que está claro, hoy lo han dejado clarísimo que no se sienten amparados por nosotros.

“Vienen, un poco, a ratificar lo que ya dije en comisión la semana pasada. No me parece lógico y ellos también lo han subrayado es que, antes de llegar a un acuerdo, ahora, se hace una aprobación definitiva, con carácter definitivo, como viene en el punto y, luego, pues ya veremos a ver que pasa, ya veremos a ver si me dan un justiprecio, si me dan algo o si no me dan nada, no. Yo pienso que el bien es de ellos, que se tenía que haber negociado previamente y que se podía haber ido paralelamente, entonces, nuestro grupo piensa que no se han hecho bien las cosas, que se podía haber obrado de otra manera, por tanto también vamos a votar en contra.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Nik nahiko nuke esan diren gauza asko ulertzen dira eta nik uste dut ezin direla ukatu eta situazio pertsonal konkretuak ulertu besterik ez daukagula, entzun eta ulertu, baina, esan diren gauza batzuk, argitu nahiko nituzke, adibidez, esan da, interes espekulatiboa, dirua atera behar duela, udaletxe batek



dirua ateratzea daukala, nik uste dut, udaletxe batek plan partzial bat edo bere plan generalaren garapena sustatzen duenean, nik uste dut, ateratzen duen, efektibamente, esan du Verdasco zinegotzi jaunak, %15eko etekina ateratzen du, baina, ateratzen duen inbertsio hori apala izateaz gain, nik uste dut, ezin dugula ekonomikoki baloratu, desarrollo urbanistiko batek sortu ditzazkeen onurak edo hobekuntzak.

“Hori esanda, edozein prozesu urbanizadorek, edozeinek, dauka alde on bat eta alde txarra eta, efektibamente, ordenazioz kanpo dagoen eraikin batek, egoera oso larria, oso konplikatu eta plan partzial bat desarrollatzen den bitartean ere, erakin horrek ditu muga asko eta, muga horiekin bizitu izan behar izan duzute azken urte hauetan. Dena den, ez dira hemen hasten eta hemen bukatzen gobernu talde honek, adibidez, dituen ahalmenak, plan partzial hau dator plan general batek ahalbideratuta dagoelako eta ez naiz ari aurreko legealdiaz, ari naiz, 2011taz, uste dut 2011an onartu zela plan generala, orduztik onartutako dokumentuaren jarraipen bat da, ez ditugu, korporazio honetan gauden, zinegotzi gehienak garai hartan ez zegoen inork korporazio hartakorik hemen eserita.

“Plan general bat emanda etorri zaiguna eta plan partzial bat hura garatzeko. Ulertzeko nondik datorren hau, ez da guk asmatuko zerbait, joko arauak plan generalak finkatzen ditu eta, hemen egiten ari gara ariketa urbaniskoaren xehetasun bat, hau da, plan generalaren orokortasunetik detailera jaitsi eta horregatik, bat nator esaten denean, prozesua ez dela hemen bukatzen, pauso asko ditu, nire zalantza da, expropiazioaren asuntua, realojoen asuntua esanda, ea prozesu honetan sartzen den, nik ez dakit plan partzial honetan jasotzen den edo ez. Nik, esango nuke aurrerago jasotzen den prozedimendu bat da. Beraz, Udal honek egin dezakeen ekarpenik eraginkorra izan daiteke, efektibamente, promotorearekin eseri eta kasu honetan, bizilagunen interesak eta realojo horiek jasan behar dituzten bizilagunen interesak defendatzen jarraitu, ez pentsatu bakarrik zaudetenik, expropiazioa egiteko, justiprezioa kalkulatzeko, legeak berak finkatzen ditu berme minimo batzuk, Nik uste dut guantea hartzen badugu, udal bezala, korporazio bezala, saiatzea realojo horiek baldintzak ahalik eta onenean lortzea.

“Berritot, nik uste dut, realojoaz ari gara hitz egiten eta etorriko da aurreragoko fase batean, eta hor egiten dugun erdibideko pauso bat izango da plan partzialaren onarpena eta berritot, plan partzial hau dator, orain urte asko onartutako garapen bezala.

“Sortu ditzazkeen ondoreza edo egunerokotasunean, sortu ditzazkeen aldaketak konpromisu hori hartu daiteke, ahalik eta ondoen bermatzea realojo horiek.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak eta Hirintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Como ha trasladado el Sr. Goenaga, esa va a ser nuestra intención, seguiremos expectantes y encima del tema para que esos realojos sean en las mejores condiciones o en las más óptimas para los afectados.”

Jarraian, Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Uste dut EH Bilduk gaia mahai gainean uztea eskatu duela, hala da? Indarrean dagoen araudiaren arabera, edozein zinegotzik eskatu dezake gai bat maha gainean uztea eta bozkatu beharko litzateke.

“Legeak dio. Cualquier concejal podrá solicitar que el expediente quede sobre la mesa, aplazándose su discusión para la siguiente sesión. En ambos casos la petición será votada tras terminar el debate y antes de proceder a la votación sobre el fondo del asunto. Si la mayoría simple votase a favor de la petición no habrá lugar a votar la propuesta de acuerdo.

“Eskatera horrela bada, bozkatu beharko litzateke.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“A nosotras también nos parece mejor.”

Parte-hartze gehiagorik egon ez denez, Alkate andreak, Usandizaga andreak, EH Bilduko zinegotziak, eskatu bezala, gaia mahai gainean uzteko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoaz, Alkate andreak eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, Alkate andreak Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lantsailak 2021eko azaroaren 18a datoko bileran emandako irizpenean jasota proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoaz, Alkate andreak eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, honakoa erabaki du:



1.- Behin betiko izaeraz onestea Balfernorte SL enpresaren izenean diharduen Fermin Loidi Garayalde jaunak aurkeztutako Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko HEE 45 AGIRIALAI hiriguneari dagokion Zatikako Planaren testu bateratua, Iñaki Tanco, Alejandro Sainz de la Encina e Imanol C. García de Albéniz arkitektoek 2021eko irailean idatzitakoa.

2.- Erabaki hau, Zatikako Planarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, erregistroan gordailatu dezaten, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.3 artikuluari jarraiki.

3.- Behin betiko onespenez-erabaki hau, aipatu Zatikako Planeko hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen gehien duten egunkarietan argitaratzea.

4.- Erabaki hau jakinaraztea Balfernorte SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Fermin Loidi Garayalde jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

5.- Erabaki honen berri ematea Errenta eta Ordainarazpen lansailari.

3. Andoingo HAPOko HEA 48 Illarramendiko b.01 lursaila zatitzeko xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.

Ikusirik, 2021eko ekainaren 2an, Martín Balda Goñi jaunak, Balfernorte SL enpresaren ordezkari gisa, Andoingo HAPOko 48 Illarramendi HEAko b.01 lursaila zatitzeko xehetasun-azterlana aurkeztu zuen. Azterlan hori Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko ekainean.

Ikusirik espediente administratiboan agertzen diren txostenak, Alkatetzak, 2021eko uztailaren 23an emandako 1428/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuen aipaturiko xehetasun-azterlana, ebazpen berean jasotako baldintzarekin: dokumentua behin betiko izaeraz onartu baino lehenago, ebazpen berean aipaturiko akatsak zuzendu beharko dira.

Kontuan harturik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente administratiboan jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarkiak argitaratu ziren udaleko iragarki taulan, 2021eko abuztuaren 19ko 158 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko abuztuaren 20ko Noticias de Gipuzkoa eta 2021ko abuztuaren 21eko Diario Vasco egunkarietan eta udal web orrian. 2021eko irailaren 17an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak egindako ziurtagirian egiaztatzen duen bezala.

Kontuan harturik, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Agencia Vasca del Agua-ra bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zitzaizkion.

Ikusirik 2021eko abuztuaren 26an jaso zela udaletxe honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Ikusirik 2021eko urriaren 8an jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren.

Ikusirik 2021eko urriaren 25ean jaso dela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Kontuan harturik, Martín Balda Goñi jaunak aurkeztu duela udaletxe honetan xehetasun-azterketaren memoria berria, non dokumentua hasierako izaeraz onartzen zuen erabakian eskatutako aldaketak jasotzen diren.

Ikusirik udal arkitektoak 2021eko azaroaren 3an eta hirigintzako eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2021eko azaroaren 5ean egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lansailak 2021eko azaroaren 18a datako bileran emandako irizpena.

Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak eta Hirintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“El presente estudio de detalle se aprobó, con carácter inicial, el pasado 23 de julio de 2021, ha sido sometido a información pública y durante ese período no se ha recibido ninguna alegación. Ha sido remitido a las diferentes administraciones sectoriales implicadas en el ámbito, de las cuales se han recibido los informes favorables pertinentes, así como, también cuenta con los informes favorables de los técnicos municipales.

“Por lo tanto, sometemos a aprobación definitiva el estudio de detalle de la división de la parcela b.01 del AIU 48 Illaramendi.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Usandizaga andreak, EH Bilduko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ez naiz luzatuko. Illaramendiko garapenean aurkeztu diren proposamen bakoitzean, bai batzordeetan eta plenoan ere, behin eta berriz eman dugu gure iritzia, badakizue zein, beraz, berriro diot, ez gaude ados Illaramendi guneari ematen ari zaion garapenarekin eta ondorioz kontra bozkatuko dugu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nuestro grupo en este punto se abstiene porque, sí que es verdad que pensamos que puede perjudicar al sector del comercio en Andoain pero, tenemos unas dudas razonables por las cuales nos vamos a abstener.”

Berriro ere, Verdasco jaunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Simplemente decir que este ámbito está siendo impulsado por una promotora privada, Las empresas que ese instalan en este ámbito vienen determinadas por la propia promotora, la labor del ayuntamiento es que estas empresas cumplan la normativa tanto técnica, como jurídica y bueno, simplemente indicar que siempre es una buena noticia que nuevas empresas se quieran instalar en Andoain.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea Balfernorte SL enpresaren izenean diharduen Martin Balda Goñi jaunak 2021eko ekainaren 2an aurkeztu zuen Andoingo HAPOko 48-ILLARRAMENDI HEAko b.01 lursaila zatitzeko xehetasun-azterketa, Blanca Balda Sevilla arkitektoak 2021eko ekainean idatzia, Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza honekin: xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurengo zehaztapen lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena, eta hondakin-uren saneamendua Adunako Uraldeko HUAri konektatuta egotearen baldintzapean.

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako errekaen saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingenieria enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman beharko du euri-urak Ziako errekaen trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako errekaen uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.

2.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu xehetasun-azterketan jasotako hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Balfernorte SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Martin Balda Goñi jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

4. Onartzea, hasierako izaeraz, Eguneko Egoitzako Barne Araudia aldatzeko proposamena.

Ikusirik, *Eguneko Egoitzako Barne Araudiaren aldaketa* proposamena.



Ikusirik, Idazkariak 2021eko urriaren 20an egindako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileak 2021eko urriaren 26an emandako irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza, honako azalpena emateko:

“Kasu honetan, batzordean aipatu zen bezala modifikazioa izango litzateke, araudiarena, ez dago adaketa handirik, komentatu ziren zenbait gauza aldatzen dira eta horiek dira gaur hemen bozkatuko ditugunak.

“Decía que, ya se comentó en la Comisión de Servicios Sociales, se trata de pequeñas modificaciones en el Reglamento que ya existe de Régimen Interior del Centro de Día. Pequeñas modificaciones y actualizaciones que se han tenido que hacer y que someten hoy a votación.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onestea, hasierako izaeraz, *Eguneko Egoitzako Barne Araudiaren aldaketa*.

2.- Administrazio-espeditentea jendurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

5. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena.

Ikusirik, Alkatetzak, 2013ko uztailaren 30eko data duen 568/2013 zenbakiko ebazpenaren bidez, Andoainen hiribarruko bidaztien garraio zerbitzua emateko kontratua Autocares Urpa SL enpresari esleitu zola, horretarako bat etorri 2013eko maiatzaren 7ko dataz onartu ziren Administrazio Baldintza Berezien Agirian eta Jarraipide Teknikoen Agirian xedatutakoarekin, eta aipatu ebazpena Osoko Udalbatzak berretsi egin zuela 2013eko irailaren 26ko datan egin zuen osoko batzarraldian. Kontratuen benetako prezioa 45.823 €-koa da, horri gehituz BEZagatiko 4.582 €-ko dirukopurua.

Ikusirik, 2013ko irailaren 1eko dataz herri zerbitzuak kudeatzeko esleipenari zegokion administrazio kontratua sinatu zela, 10 urteko indarraldirako.

Ikusirik, 2021eko abuztuaren 13an Autocares Urpa S.L. baltzuak Udal honen aurrean aurkeztu duela Andoingo bidaztien hiribarruko garraio zerbitzua aztertzeari buruz zerbitzualdi horretako zortzigarren urteari dagokion jarduketa txostena.

Aintzat izanik, zerbitzuaren esleipena arautu zuen Baldintza Teknikoan Agiriko bigarren baldintzak ezartzen duela kontzesiodunak, zerbitzuaren lehenengo urtetik aurrera, eta iragandako urtearen hurrengo urteko lehenengo hilabetez zehar urteko balantzea aurkeztu beharko duela jardueraren emaitza ekonomikoen kontu osoa azalduz, galdu-irabazien kontuak aditzera emanez eta urtealdiaren gaineko oroitidazkia edo txostena aurkeztuz. Diru-galera ematen duen kontzesioa izanik, Udalak, kontzesiodun enpresari urtero diru-laguntza emanez, diru-sarrerak osatu egingo ditu horrela kontzesioaren oreka ekonomikoa lortuz. Diru-laguntzaren zenbatekoa urtero berrikusiko da behin esleipenaren lehenengo urtealdi osoa igaro ondoren, horretarako kalkulua eginez esleipendunaren proposamen ekonomikoan jasotako datuen gainean, hots, ustiapen kostuen gehi industria irabazien batura zatituz txartelaren salneurria bider aurreko urtean izandako bidaiari kopuruaren emaitzaren artean.

Ikusi ondoren Ingurumen teknikariak 2021eko urriaren 19an emandako aldeko txostena, non adierazten baita, kontzesiodunak aurkezturiko datuak aztertu izanaren ondorioz, Andoingo hiribarruko bidaztien garraioak, hiribus ere deiturikoa, zerbitzuaren jarduneko zortzigarren urtean agertzen duen desoreka ekonomikoa diru-sarreraren ataletik datorrela, zeren eta hasieran zenbatetsitako bidazti kopuruan baino erabilzaile gutxiago izan baita, zerbitzuaren esleipen prezioa 13.682,40 eurotan osatu behar da, eta, horrenbestez, ekitaldi barrirako zerbitzuaren esleipen prezioa 58.268,18 €-tan finkatzen da, horri gehituz BEZari dagozkion 5.826,22 euro gehiago.

Ikusirik, era berean, hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2021eko



urriaren 20an egindako aldeko txostena.

Kontuan izanik Kontuhartzaitzako udal lansailak oniritzia eman diola proposamenari.

Ikusirik, Zerbitzuetarako Batzorde Informatzaileak 2021eko urriaren 25eko bileran emandako aldeko irizpena.

Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eleduna eta Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honako azalpena emateko:

“Hau urtero etortzen den puntu bat da, batzordetik pasa zen, bertan onartu zen eta aipatu, 11.682 eurotan konplementatzen dela.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo hiribarruko bidaiarien garraio zerbitzuaren esleipen prezioa 13.682,40 eurotan osatzea, kontzesioan gertaturiko desoreka ekonomikoa berdintzearen eta, horrenbestez, ekitaldi berrirako zerbitzuaren esleipen prezioa 58.268,18 €-tan finkatuko da, horri gehituz BEZari dagozkion 5.826,22 euro gehiago. Prezio hori kontzesiodunari ordainduko zaio behin zerbitzuari dagokion xeheturiko faktura aurkeztu ondoren.

2.- Erabakia jakinaraztea Autocares Urpa S.L. enpresari.

3.- Erabaki honen berri ematea Udaleko Kontuhartzaitza lansailari.

6. 2021.06.30 datako kontuhartzaitzako emandako txostenaren berri ematea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Dakizuenetz, hau hilabetero ekartzen dugun kontu ematera eta esan bezala ekainaren 30ean, 2021eko ekainaren 30ean, egongo liritezke 934.480,19euro pendiente.

“Decíamos que esto es una cuestión que como marca la ley solemos traer a dar a conocer las facturas que están pendiente de pago por parte del ayuntamiento que a 30 de junio de 2021, conllevaría un importe total de 934.480,19 euros.”

Kontuhartzaitzako 2021eko ekainaren 30ean egindako txostenaren berri ematen da eta Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

7. 2021.09.30 datan kontuhartzaitzako emandako txostenaren berri ematea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Kasu honetan gauza bera, baino, 2021eko irailaren 30ean, egongo liritezke 1.479.049,38 euro pendiente. Hemen noski, kontutan hartu abuztuko hilebeta dagoela.”

“Decíamos que la cifra a 30 de setiembre de 2021, sería de 1.479.049,38 euros y quedaría constancia del mes de agosto, en el cual no se producen pagos y por eso se incrementa este importe.”

Kontuhartzaitzako 2021eko irailaren 30ean egindako txostenaren berri ematen da eta Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

8. EH Bildu udal taldeak 2021ko azaroaren 12an aurkeztutako mozioa, interes publiko gorenko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa.

Alvarez jauna, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta mozioa irakurri du:

“Arratsalde on, guztioi. Dakizutenetz, Eusko Jaurlaritzak lege proiektu bat onartu nahi du, udal autonomiari eraso egiten diona, hau da, udal batek onartutako plan orokorraren gainetik Jaurlaritzak interes orokorreko ikusten badu, nahiz eta, plan orokor horren kontra joan, Jaurlaritzak izendatu dezake edo egin dezake nahi duen egitasmo edo nahi duen jarduera udal eremuetan eta horren aurrean, mozio bat aurkeztu dugu eta mozioa irakurriko dut.



“Interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriri buruzko mozioa. Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

“Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetariko baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

“Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zaborteziak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...).

“IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintza-plangintza ko tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren parte-hartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOa baliogabetu egingo du. Are gehiago, Lurralde Antolamenduaren Legearen aldaketa honek toki-erakundearen prebentzio-kontrolerako ahalera ere baliogabetzen du.

“IPGP” figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat

erabilerak mugatzeko.

“Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren legea laster baldintza horietan onartu ahal izat ea. Hori dela eta, Andoingo Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

“1. Andoingo Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko

Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.

“2. Andoingo Udaleko Osoko Bilkurak EUEDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen uda-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.

“3. Andoingo Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrera eta EUEDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du

Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta lehenbizi, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nuestro grupo está de acuerdo con esta moción. Sí que nos parece que puede hacer un injerencia sobre lo que se trata a nivel local y sí pensamos que esto, si se lleva a cabo, puede tener una utilización partidista en las infraestructuras y demás proyectos.

“Vamos a apoyar la moción.”

Jarraian, Romero andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotzik, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Udal talde sozialistatik gure botoa EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioaren aurkako bozka izango da, arrazoi hauengatik:

“Aurkeztutako mozioa gure tokiko demokrazioaren urraketa aipatzen du. Gure ustez, inor ez da tokiko demokrazia urratzen ari. Are gehiago, sozialistak udal defendatzaile sendoak gara eta izango gara beti. Kontua da, akatsa egiten dela toki eremura eramatearekin, erronka horiek udalerrien, erkidegoen eta



estatuen mugak gainditzen dituzte eta kontinentalaraino ematen uzten badidate.

“Udal ordezkariok maila eskatzen zaigu. Datozen urteetan aurre egin beharreko erronka handiek guztioi eragiten digutelako eta, dagoeneko hemen daude eta berandu goaz. Hemen beldur garen erabakien eragin zuzena izan dezakete gure auzokideen bizitzan.

“La lucha contra el cambio climático, pasa por una firme apuesta por la transición energética, la economía circular, una gestión de los residuos que nos permita una eficiencia energética lo más elevada posible y en esta parte todos los grupos estamos de acuerdo, pero, cuando llega el momento de actuar damos la espalda.

“¿Cómo vamos a cumplir los objetivos de desarrollo de una economía circular sostenible, capaz de altas tasas de valoración si desde los ayuntamientos se paraliza la instalación de plantas necesarias para ello.

“¿Cómo vamos a alcanzar la ansiada soberanía energética si nos oponemos sistemáticamente a la instalación de parques eólicos o fotovoltaicos, porque, más allá de lo que se está diciendo, la ley de administración ambiental hace referencia a cuestiones muy concretas.

“Proyectos de especial interés público. Es decir, que trasciende de lo local a la totalidad de Euskadi e impulsados por el Gobierno Vasco.

“Han de ser debatidos y estudiados por el Consejo de Gobierno, dicho sea de paso, elegidos por los representantes de la ciudadanía vasca.

Ésta no es una figura nueva, ya existe en la legislación estatal o de muchas comunidades como Nafarroa.

“Azken batean, herritarren gehiengoaren babesarekin baino lortuko ez ditugun erronkei egin behar diegu aurre.

“Herritarrei mezu egokiak bidaltzen jakin behar dugu, ez dezagun fribolizatu, ez dezagun nahastu erronka klimatikoa bezalakoa gauza serioetan. Golf zelaiak eraikitzeke udal autonomia bertan behera utzi nahi dela esanez.

“Nadie puede quedarse fuera de la lucha contra el cambio climático, porque muchas pequeñas acciones, consiguen grandes resultados.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, uzten badidazu umore pixka bat egiten, ongi etorria eman nahi diot gaur Andoni Alvarez jaunari, besteak beste politikari profesional bilakatu delako bera, askotan besteei esaten diguzu politikari profesionalak garelako gure alderdien erraminta gisa funtzionatzen dugulako eta, gaur zuek egin duzuten horixe bera da, ez.... Bilduk, Gasteizen, Parlamentuan daukan arazo bat, sistemakikoki udaletxe guztietara zabaldu eta politika egin, alderdiaren instrumentu gisa eta Andoingo udalari aurkeztu mozio bat eztabaida bat planteatzeko. Eztabaida interesatu bat, eztabaida interesatu bat, zeren, eztabaidaren debatea ez da Andoingo gai konkretu bat, baizik, Eusko Legebiltzarrean burutzen ari den eztabaida bat delako.

“Ezin esan dezakegu aurka, aurka gaude, erabat aurka gaude, besteak beste, demagogia totala iruditzen zaigulako mozioa. Demagogia totala denok garelako superekologistas, denok gara superguai, supermodernos, denok nahi dugu ingurune jasangarri bat, energia berriztagarriak, ur garbia ibaietara botatzea, eta nola, nola?”

“Oraintxe egon gara Glasgoven, egon gara koferentzia gailur horretan, mundu guztia esanez 1,5 baino gehiago ezin dugula berotu, konpromezuak hartu behar ditugula, 2030 urterako neutralak izan behar dugula karbonoaren aldetik, oso ondo, hitzak dira, hitzak dira, baina hitz horiei ez badiegu konpronezurik jartzen, jai daukagu eta, nik uste dut hor dagoela, arazo honen muina, hor dago problema nagusia.

“Nik galdetuko banio Santana andreaki edo nire amari edo beste edozeini, nahi al duzu zure etxe ondoan depuradora bat, ur zikink garbitzeko, saneamenduko ur zikinak garbitzeko, nik garbi daukat nire amak zer esango zidan, ez, jar dezatela bizilagunaren etxean.

“Galdetuko banio, nahi al duzu energia fotoboltaiko, molino eolikoa jartze zure etxea? Ez, jarri dezatela beste udalerrian eta, jarrera horrek, jarrera hori ez da jarrera koherentea gure diskortsoarekin eta, gure anbizio klimatikoa izan behar badu, anbizioak izatea eta efektibamente transizio bat egitea



ingurune jasagarri batetara, nola? Nola da galdera. Izen abizeneko proiektu zehatzak, egin beharko ditugu depuradorak, egin beharko ditugu parke fotoboltaikoak, eolikoak, araztegiak, balorizazio zentroak, plastikoen eta beste materialen birziklatze plantak.

“Zer gertatzen da? Udal asko izan dira traba, traba, zergaitik? Udalak direlako herritarrengan gertuen dauden erakundeak eta udaletan, nolabait, herritarren kezak daudenean, udalek zer egiten dute? Erabili ordenamendu urbanistikoa, alegia, herrian herriko plan generala trabak jartzeko eta proiektu guzti horiek bertan behera gera daitezten.

“Horrela jarraitu behar dugu? Alegia, Gasteizen gauza bat esan eta herrietan beste bat egiten edo, koherenteak izan behar dugu. Gure iritziz, benetan sinesten badugu transizio klimatikoa lehentasuna dela, horretarako bitartekoak jarri behar ditugu eta bitarteko anbizioso horiek eskatzen dituzte proiektu estrategikoak, ez golf zelaiak. Proiektu hau ez da golf zelaiak egiteko eta, interes generaleko izendapen hori prozedimendu baten arautzen da eta prozedimendu horren barruan onartzen bada interes generalekoa dela parke fotoboltaiko bat jartzea, zehaztu beharko da non, nola eta zergaitik, baina, interes orokorraren menpean, ez golf zelai bat egiteko.

“Nire ustez horrekin egiten dugu nolabaiteko demagogia. Santana andrea, berdina, hau ez du Eusko Jaurlaritzak asmatu, erraminta juridiko hau existitzen da komunitate autonomo desberdinetan. Por cierto, batzuetan gobernatzeko ari zarete. Alegia, está muy bien, en Euskadi no lo quiero, pero allí donde estoy gobernando y estoy dando el apoyo, por cierto, en Navarra también, con el apoyo de Bildu, ahí ya me vale. Entonces, es como bueno...Erraminta hau existitzen da, ez gara horren inobadoreak, alderantziz atzetik goaz eta askatzeko prozesu bat transizio klimatikoa egiteko.

“Gure aldetik, gure kontrako bozka, sinesten dugulako ez azkartu, behar ditugulako mekanismoak azeleratzeko prozesu guzti hau.”

Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“¿Si me gustaría tener una depuradora al lado de casa? Seguramente no, pero lo que está claro es que a vuestros políticos tampoco les gustaba tener la incineradora en Donostia y por eso la pusieron en Zubieta.”

Goenaga jaunak erantzuten du:

“Le recuerdo que la incineradora inicialmente no iba en terrenos de Zubieta, sino de Usurbil y terminó en Zubieta, esa parcela es de Donosti.”

Santana andreak erantzuten du:

“Esa similitud que ha hecho con lo de la depuradora, nadie quiere nada que le moleste al lado de casa, está claro, pero hay que ver, cuando una cosa es de interés general. Aquí cualquier proyecto que se haga está sometido a un informe medioambiental. Esto puede llegar a ser un coladero de que quiero hacer esto y tengo un informe medioambiental y es favorable pues se hace. Quiero decir, que por lo que veo, yo poco conocimiento político y poca vida política tengo, la verdad, no voy a decir lo que no es, pero sí que estoy viendo que en muchas cosas hay intereses partidistas y que por mi parte, personalmente, no las entiendo y, estas cosas suelen ser un coladero para que al final se haga lo que uno quiere. Así de claro. ¿Cuál es el interés general? El interés general de algunos, no tiene por que ser el de todos. Es muy relativo. Nosotros apoyamos la moción. Todos estamos de acuerdo en el grupo. Lo vemos claro. No estoy hoy bien para poder argumentar pero vamos, desde luego, que sí que creemos que aquí, lo del interés medioambiental va a ser un coladero de muchos proyectos, otros no se van a llevar a cabo, porque no interesan, pero pienso que en los municipios afectados, debe valer la opinión y tenemos que poder opinar también sobre lo que se va a hacer en un territorio, porque, entonces todo va a estar supeditado a un interés general, todo.”

Jarraian, berriro ere, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Jaurlaritzako eztabaida bat ekartzen dugu ona, guri zuzenean eragiten gaituelako. Lege honek esaten duena da, Andoingo udalaren, gure udalaren, eskumenen gainetik, Jaurlaritzak erabaki dezakeela gure lurretan, berari iruditzen zaiona, interes orokorrekoa baldin bada, hori egitea.

“Orduan, esan duzu. Hemen herri batzuetan trabak jartzen ari dira eta, noski, errausgailuarekin berdina, errausgailua Usurbilen zijoan baina, Usurbilgo udalak trabak jarri zituen eta orduan, zer egiten



dugu? Etortzen gara pixka bat honuntza eta bueno, donostiarrei ez die eragiten urruti dagoelako eta orduan, Donostian egiten dugu eta, hau da, ba traba horiek udalerrriak ez jartzeko, ateratzen den lege bat.

“Hemendik aurrera, esaten bada Usurbil, Usurbilen egingo da eta, esaten badute Andoain, Andoainen egingo da eta, hau da, gure teiltuari harriak botatzea.

“Hemen gu Andoingo udal ordezkariak eta, honekin, esaten ari gara, hemengo lurretan zer egingo den Jaurlaritzak erabakiko duela eta gero, hemendik urte batzuetara esango dugu, ez, hori ez da gure eskumena, hori Jaurlaritzaren eskumena da, baino, ez da gure eskumena izango, gaur, gu ari garelako beraiei esaten hemendik aurrera zuek erabaki interes orokorrekoa bada, zuen interes orokorrekoa bada, zer egin gure lurretan. Gu ari gara onartzen, eh.... Ez du balio aurrerantzean esatea, ah... ez da gure eskumena, ez, ez....gu ari gara gaur hori horrela erabakitzen. Oso gauza larria da eta, ondo esan duzu, herri askotan trabak jartzen ari dira, bai, noski, eta trabak jarriko dituzte eta, gauzak egin behar direlako adostasunarekin, orekak bilatu beharko dira. Herriaren nahiak eta Jaurlaritzaren nahiak eta, mozio honen kontra zaudete, bai, noski, zuek egin duzelako lege hori, normala, baino, pentsatu behar duzue hemen Andoingo udal ordezkariak garelako eta honekin lortzen ari gara, Andoingo lurren erabaki gunea beste nonbaitera eramatea.”

Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, erantzuten du:

“Barkatu. Ez, tajantementez, ari zarete demagogia egiten. Andoingo udalak dauzka bere ahalmenak, gabeziak eta bere mugak. Andoingo udalak ez du erabakitzen zenbat etxebizitza egin daitezkeen, daude DOT izena duen herraminta bat, Jaurlaritzak, herri ordezkariak ez dituen Jaurlaritzak nonbait, martzianoa da, Jaurlaritzak nork aukeratzen du? Herritarrek aukeratzen dute, bale, hori ere matizatzeko.

“DOT horiek finkatzen dute Andoainen egin daitezkeen mila etxebizitza, bi mila, bost mila edo hamar mila, beraz, non dago, udal eskuduntza? Beste nonbaiten, beste kanpoko erakunde batek hartu du erabaki hori, non erabakiko da trenbidea, geltokia non jarriko den? Beste leku batean, beste erakitze esparru batean, edo bide bat.

“Aktibitate ekonomikoak, edo babes guneak, forestalak, zehazten duena mendi honetan ezin da hau edo beste egin. Hau da, udalek dituzte eskumen batzuk eta udalez gain beste eskumen batzuk, ezin dugu esan orain ari garela inbaditzen. Ez, ez, ez gara inbaditzen ari inongo legerik, esaten duguna da proiektu batzuk estrategikoak badira, proiektu horiei bide eman beharko zaiela eta proiektu horiek pasatu beharko dituzte filtro batzuk, zehazteko, helburua, zertarako eta zer objektiboekin.

“Porque me río yo... todos somos super ecologistas, eso sí, yo no quiero depuradora, pues a mí, sinceramente, el debate, déjeme terminar, déjeme terminar, Sra. Santana. A mí el debate de quiero un depuradora o no, no me importa, yo lo que quiero es que no vertamos agua sucia al río. Si he dicho que en el 2030 todos los ríos de Euskadi tienen que estar limpios o pongo depuradoras o lo tengo jodido.

“Lo que no puede ser es, no, no, no es que errausketa... bale, bale, zer nahi dut, segi nire zaborra bizilagunarengana eramaten, Nafarrora edo beste nonbaitera bidaltzen. Jarri dezagun, baino hori da, pseudoecologismo, hori ez da norberak bere hondakinak, bere ahalmenean dauden isuriak, bere eskumenetan dauden ekimenak sustatu behar ditu. Ez du balio, nik nire etxean ez, bizilagunak egin dezala. Hori da hipokresia. Guk diogu, izan gaitezen autosufizienteak eta soluzionatu ditzagun gure beharrak eta gabeziak eta horretarako molinoak jarri beharko ditugu, araztegiak jarri beharko ditugu, planta bereziak ezarri, hori inebitablea da eta inorrek ez duela nahi bere etxe ondoan bat, bai, baina norbaitek erabaki beharko du zer behar dugun, zenbateraino eta non jarri beharko den ere bai.

“Interes orokorraren, guztiontzako, izenean beharko du izan, ez andoaindarrentzako bakarrik, baizik, kasu honetan Euskal Autonomi Erkidegoan bizi garen guztiontzako.”

Alvarez jaunak, erantzuten du:

“Argi geratu dira posturak, gu berresten gara esandakoarekin, gure ustez, egia da zenbait gauza Andoaindik kanpo erabakitzen direla jada eta hau bat gehiago izango litzateke eta gu horren aurka gaude. Guk nahiko genukeena baino gauza gehiago erabakitzen dira Andoaindik kanpo eta guk nahi dugu lege hau aurrera ez ateratzea eta andoaindarrek eta Andoingo ordezkariak erabakitzea gauza horiek.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal



taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Gaur urgentziazko gai bat dugu, hain zuzen ere, gaur, indarkeria matxistaren eguna dela eta, prestatu den adierazpen instituzionala dela eta Romero andreaki pasatuko diot hitza.

“Decía que tenemos un punto fuer del orden del día qu ese quiere incluir con urgencia, es la declaración institucional por el día de la violencia machista.”

Romero andreak, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuneko Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Atzo, adierazpenaren testua adostu genuen eta hori dela eta urgentzia.”

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

9. Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna de la eta 2021eko azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionala.

Romero andreak, , Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Urtero bezala, eskerrak eman nahi dizkiet beste taldeetako ordezkarietara testua adostu dugulako.

“Azaroaren 25ean, Andoingo Udalak bat egiten du Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunekin. Indarkeria jasaten duten emakumeen, seme-alaben, gurasoen, senideen eta lagunen mina partekatzen dugu. Horiei zuzentzen diegu gure babes osoa, kausarik justuenaren alde borrokatzen garen uste osoaz, eta indarkeria matxista gure gizartetik desagerrarazi arte aurrera egiteari ez uzteko konpromisoa. Badakigu bidea luzea izango dela, baina horrek eragiten du premiako pausoa estutzea eta aurrera egiten jarraitzea, besterik ez.

“Urte luze hauetako lana indarkeriari maskara kentzea izan da. Ez da lau zororen kontua, baizik eta sistema patriarkal sendo baten ondorioa .

“Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestaren datuen arabera, emakumeen % 34,2k bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeria jasan du. % 47,2k ez dituzte laguntza-zerbitzu publikoen aurrean salatu eta ez dituzte erabili. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

“La llamada violencia vicaria es la violencia que se ejerce sobre la mujer con el fin de causarle el mayor y más grave daño psicológico a través de terceras personas y que consigue su grado más elevado de crueldad con el homicidio o asesinato de las mismas (hijos e hijas, madre, padre, pareja actual, etc.).estos casos se entienden como una manifestación más de violencia de género, una vez que el daño infringido a los hijos e hijas convierte a las niñas y niños en instrumento y correa de transmisión del maltrato de los agresores hacia las mujeres.Las cifras aumentan cuando nos referimos a las mujeres jóvenes. Detrás de la frialdad de cada cifra y cada porcentaje está la vida de una mujer.

“Además de esto, según un estudio de Emakunde, solo la mitad de las mujeres que sufren violencia recurren a algún servicio público para pedir ayuda. La otra mitad está oculta.

“Pero no solo la mitad de las víctimas. También la mitad de los agresores están ocultos. Y también podrían ser nuestros amigos y nuestros vecinos. Nuestros compañeros o nuestros socios. Nuestros padres y nuestros hermanos.

“Ningún interés partidista debe estar por encima de la lucha contra una violencia que suma cada día dolor e injusticia y que nos avergüenza como sociedad. Por eso, tenemos que actuar siempre desde la responsabilidad que implica hacer frente al mayor problema que tiene nuestra sociedad, buscando el acuerdo entre las diferentes fuerzas y sumando voluntades.

“Y es necesario construir espacios seguros para las mujeres, impulsar recorridos de empoderamiento y crear ámbitos de cuidado colectivo.



“Genero-indarkeriaren aurkako konpromisoa ebaluatu, berritu eta eguneratzeko unea da, eta ahalik eta adostasun handiena lortu behar da, genero-indarkeria estatu-kontua izaten jarrai dezan, alderdi politiko guztiei dagokiena.

“Nabarmendu nahi dugu, azken aldian, sare sozialetan eta espazio publikoetan, kide feminista askoren kontrako jazarpen handia ari garela ikusten. Ez da kasualitatea. Espazio publikoa hartu eta diskurtso eraldatzaileak mahaigaineratzen dituzten emakume feminista hauek jazartzea, antolatutako gorroto eta indarkeria matxista kanpaina baten ondorio da. Eredu digitalean gertatu diren jazarpen kasu hauek gutxietsi ohi dugu, baina duten garrantzia eta emakume hauen jarduna eteteko duten asmoa salatzeke garaia da. Horregatik, lerro hauek erabili nahi ditut, espazio horietan dauden kideei haien lana eskertu eta alboan gaituztela esateko.

“Emakumeen aurkako indarkeria bateraezina da gizarte guztiz demokratiko batekin. Emakumeen segurtasuna eta bizitza bermatzea eta biktimak babestea ez da aukera bat, betebehar demokratiko bat baizik. Indarkeria matxistak interpelatu egiten gaitu, eta tokiko administrazioek aurre egin behar diogu, eskura ditugun bitarteko guztiekin.

“Gure eskumenen esparruan, funtsezko zeregina betetzen dugu prebentzioan, baita emakume biktimei eta haien seme-alabei informazioa, aholkularitza, babesa eta laguntza ematean ere.

“Horregatik guztiagatik, Andoingo udalbatzak honako erabaki hauek proposatu ditu, onar daitezten:

“1. Contribuir, a través de los servicios municipales, a la detección de menores víctimas de violencia machista y a la intervención precoz, en colaboración con otros agentes (servicios sociales, juventud, educativos, sanitarios y policiales, etc.), así como a la atención de las necesidades y condiciones de las mujeres con menores a su cargo y de los afectados con otras personas menores de edad.

“2. Andoingo Udalak ez du murrizketarik egingo 2022ko berdintasun-aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

“3. Poner en marcha programas, y medidas, que respondan a las necesidades que se evidencien el diagnóstico sobre cuidados que se está llevando a cabo desde el departamento de igualdad.

“4. Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea, besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria-bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta protokolook eguneratzea

“5. Garantizar la formación en igualdad del personal de la administración local, especialmente del personal que trabaja en la respuesta ante la violencia machista contra las mujeres desde la perspectiva de género y los derechos humanos.

“6. Indarkeria matxistaren aurka borrokatzen duten eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte zibileko elkarte feministekin lankidetzan aritzea

“7. Seguir impulsando los programas de apoyo al empoderamiento de las mujeres y la prevención de la violencia entre la población más joven, como instrumentos esenciales para impedir futuras situaciones de violencia.

“8. Ziberindarkeria eta ziberjazarpena prebenitzeko eta erantzuteko estrategiak landuko dira, indarkeria matxisten egungo egoeraren analisiari erantzuteko.

“9. Ratificar el compromiso firme del Ayuntamiento de Andoain, con los derechos de las mujeres y el compromiso con las víctimas para la erradicación de cualquier tipo de violencia machista.

“Eta, era berean, Andoingo herritar guztiei dei egiten diegu azaroaren 25aren inguruan antolatu diren ekitaldietan aktiboki parte har dezaten, bereziki indarkeria matxistaren biktimak omentzeko ekitaldian, udalak antolatuta, hainbat emakume-elkarterekin eta mugimendu feministarekin batera, azaroaren 25ean 19:00etan Goikoplazan. Ondarreta Ikastetxeko patioan eguraldia txarra bada. (Azken hori indarrean dauden Covid-19aren gomendio guztiei jarraituz).”

Jarraian, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, adierazpen instituzionala onartu du bere osotasunean.



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2021/11/25

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 25/11/2021

10. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1902/2021 zenbakidunetik 2073/2021 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1902/2021 zenbakidunetik 2073/2021 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 18.42 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

